



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2020ko urtarrila · 360 alea

TOKIKOM



FUTBOLARI
SASI GUZTIEN
GAINETIK



PIL-PILEAN 360

2020ko urtarrila

Azaleko argazkiaren egilea:
Fernan Oregi.

Aurkibidea

- 4 **Bote prontuan** Oihane Brauer
 - 6 **Begira** San Blas opilak
 - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
 - 14 **Argazki bidez** Euskaraz ikasten
 - 18 **Erreportajea** Emakumezkoen futbola
 - 23 **Kirola** Boxeo eta pilota
 - 24 **Kultura** Jokin Oregi, aratosteak eta Gaztetxea
 - 26 **Gure artistak** Loiola Madera
 - 27 **Nondik nora** Samira Claine
 - 28 **Sakonean** Toponimoen mapa
 - 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
 - 3 **Neuretik** Itziar Agirre
Herriari eman egin behar zaio
 - 16 **Gutunak** Irati Trebiño
Soraluzen ere txakurrak oinutsik
 - 16 **Hausnarketa** Abiadura murrizteko bandak
 - 17 **Zir(r)ika** P.G.
Abiadura murrizteko bandak
 - 17 **Puntua** Maite Garmendia
Kanpora joan behar inguruko egoeraz jabetzeko



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa

Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea

Miren Gallastegi

Diseinua

Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa

Oier Larreategi

Inprimategia:

Gertu Koop.

Banaketa:

Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:

SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko
UDALA**

Herriari eman egin behar zaio



ITZIAR AGIRRE

Urtea bukatu dugu bi negozio itxiko diren albistearekin (bata jada itxita dago).

Azken urteetan, Mariaje artile-denda, Santa Anako burdindegia, Kulunka gozotegia, Jabierren harategia, Kilika umeen jantzi-denda, Mendata taberna, Venanen Plaza Berriko denda... itxi dira, besteak beste. Lokal batzuetan negozio berriren bat jarri dute, baina gehienek hutsik diraute. Orain, Goiararen eta Gazteluperen txanda izan da.

Zer gertatzen da herrian? Zergatik ez dute negozioek aurrera egiten?

Beharbada herri honetako alokairuak handiegiak dira bertako salmentarako (hau izan ahal da lokalak hutsik egoteko arrazoietako bat); edo dendarien lan-orduak luzeegiak dira (jendeak ez du nahi horrelako lanik izan, lan asko eta jaiegun gutxi izaten dira).

Askok esaten dute herria pobretuta dagoela, ez dela jenderik ikusten erosketak egiten. Kanpoan lan egiten dutenek bertan egiten dituzte erosketak, eta azken urteotan herrira bizitzera etorri direnek ere ez dituzte euren erosketak herrian egiten.

Egia esan, erosketa ohiturak asko aldatu dira azken urteetan. Orain, zentro komertzial handietan eta Internet bidez erosten du gehiengoak. Oso eroso da etxetik mugitu gabe erosketak egin ahal izatea, baina ez gara jarri pentsatzen horrek sortuko duen eraginaz.

Dendak ixten joaten badira:

- Zelako herria izango dugu?
- Ze zerbitzu izango ditugu?
- Norena izango da erantzukizuna?

Gurea da ardura, gu gara herria pobretzen uzten ari garenak. Denok.

Horrela jarraituz gero, gremio batzuk desagertzeko arriskuan egongo dira. Adibidez, garai batean askoz harategi gehiago zeuden, gaur egun hiru daude eta bertako langileak jubilatzen direnean... zer gertatuko da? Ba al dago erreleborik? Eta gauza bera gertatutako da arrandegiarekin eta beste denda mota batzuekin.

Nik uste sektore honen inguruan lan handia dagoela egiteko, bai erakundeek, baita guk guztiok hausnarketa eginez ere.

Herriari eman egin behar zaio, berak berriz bueltan emateko.

HORRELA JARRAITUZ GERO, GREMIO BATZUK DESAGERTZEKO ARRISKUAN EGONGO DIRA

“Ikertzaile eta teknologo beharra dagoela ikusi da”

OIHANE BRAUER VEGA BIZILABEKO ZIENTZIALARIA

OIHANE BRAUER VEGA BIOLOGOA

ARGAZKIA: FERNAN OREGI

Urtarrilaren 16an elkarrizketatu genuen Oihane Brauer (Ermua, 1991). Lehen eskola eguna zuen Institutuan. Izan ere, maiatzera bitartean, STEAM (Science, Technology, Engineering, Art and Mathematics) edukiak landuko ditu DBH 1. eta 2. mailako 15 ikaslerekin, Bizilabe (Gazteentzako Zientzia-Bizipenen Labea) ekimenaren baitan. **Zer lantzen zabilzate?** Bizilabe gazteendako ikerketa zentroa da; haren bitartez, gazteei STEAM arloa probatzeko aukera eman nahi diegu, beraz, STEAM arloak jorratuko ditugu ostegunero: DNAREN erauzketa, pilak egingo ditugu frutekin, motor teknikoak... Gaur, adibidez, elkar ezagutzeko dinamika bat egingo dugu: zergatik datozen, zer dakiten zientziaren eta teknologiaren inguruan, zer pertzepzio duten ikertzaileei buruz... **Zer pertzepzio dute, bada?** Zientzialari gehienak gizonak direla, adimen handikoak, maila sozioekonomiko ertainekoak eta zuriak. Baina hori ez da horrela eta guk irudi hori apurtu egingo dugu. **Zer dela eta abiarazi duzue ekimen hau DBHko 1. eta 2. mailakoekin?** Ikertzaile eta teknologo beharra dago. Europan eta Debabarrenean ikerketa egin dute gazteen STEAM pertzepzioa zein den ikusteko; kasu bietan emaitzek erakutsi dute gero eta gutxiago aukeratzen dituztela zientzia eta teknologia graduak, batez ere neskek. Halaber, ikusi da halako edukiak zenbat eta gazteago lantzen hasteak eragin positiboagoa duela gazteengan. Ikastetxeetan halako edukiak modu teorikoagoan lantzen dituzte, eta guk erakutsi nahi diegu STEAM arloak modu ludikoan ere landu daitezkeela. Ildo beretik, frogatuta dago pertsona bat zenbat eta kapital zientifiko gehiagok inguratu, pertsona horrek erraztasun nabarmen handiagoa izango duela halako edukiak edo ikasgaiak aukeratzeko. Bestela esanda, familian zientzia eta teknologia arloan lan egiten duen norbait izateak asko laguntzen die hurrengo belaunaldiei bide bera aukeratzeko. Hori da Bizilaberen helburua, horretara gatzoz gu. Elgoibarren, Ermuan eta Bilbon

ere badira Bizilabe guneak eta Nerbioi Ibaizabaleko 10 herri ere badute Bizilabe. Hau guztiau tokian tokiko udalen inplikazioari esker egiten da. **Zientzia eta teknologia kontzeptuez gain, bestelako gai batzuk ere landuko dituzue...** Bai, zeharkako konpetentziak: pentsamendu kritikoa, talde-lana, gazteen ahalduzua, genero berdintasuna... Izan ere, ekimenaren baitan STEAM edukiak ikasteaz gain, proiektu bat landu beharko dute gazteek, taldean. Eta taldeetan, norbere iritzia emateko gai izan behar dira, beraz, gazteak pentsamendu kritikoa garatzeko gai izan behar dira. Ildo beretik, komunikazioa ere asko lantzen dugu, ez bakarrik proiektua aurkezten dutelako, baizik eta egunerokotasunean ere komunikazioa behar-beharrezkoa delako. **Lantegiak bisitatuko dituzuela diozue.** Inguruko enpresak bisitatuko ditugu, gazteek ikus dezaten Bizilaberen baitan lantzen ditugun gaiak badutela aplikazioa bizitza errealean. Gazteek euren proiektua azalduko dute enpresetan, eta enpresetako langileek euren lana azalduko diete. Gazteek eurek landu dituzten edukiek eta proiektuek ze aplikagarritasun duten ikustea da helburua. **Bestalde, Bizikalerekin ere bazabilzate zerbaitegin nahian, ezta?** Otsailaren 11n Neska eta Emakume Zientzialarien Nazioarteko eguna da; egun horretan, Bizilabe martxan dagoen hainbat udalerritako saltokietako erakusleihoak emakume zientzialarien irudiek dekoratuko dituzte; horrekin batera, aste horretan, Bizilabeko kide diren gazteek denda horietan ikertzaileekin lotutako esperimendu bana egingo dute. Sorraluzen ere harrera ona izan du ekimenak, 9 komertzioz parte hartuko dute. **Emakumeei dagokionez, zientziaren arlo profesionalen zela dago kontua?** Zailtasun gehiago ditugu; berdintasuna lantzea beharrezkoa da. STEAM arloan ikusten da emakume gutxiagok ikasten dituztela halako ikasgaiak eta lanpostu gehienak gizonak betetzen dituztela. Osasun alorretan (biologia, erizaintza...) emakume gehiago daude, baina, gai teknologikoak (ingeniaritzak eta) batez ere mutilek egiten dituzte.



San Blasaren esentzia gozoa

ARGAZKIA: FERNAN OREGI

TESTUA: UBANE MADERA

Urtarrilarekin batera, atariak anis usainez bustitzen dira Soraluzen. Sorapediakoek diotenez, San Blas opilak egiteko etxe bakoitzak bere errezeta dauka. Gozoena, baina, norberaren etxekoa, ezta? Edozelan ere, halako baten faltan, gozo askoa egiten dute baita Mendizabalenean ere. Eusebia Arana eta Emiliana Villanueva Tornos sukaldariek hasi ziren opilak egiten eta saltzen, 90eko hamarkadan. Kontaezinak dira harrezkero egin dituztenak; eta egingo dituztenak. Bistan da errezeta primeran ikasi dutela Mendizabaltar gazteek.





Udal inbertsio nagusiak

Soraluzeko Udalaren 2020ko aurrekontuko inbertsio nagusia Plaentxi Eskolaren eraikineko eskailera zaharbertitzeko da. Urtarrilaren amaierarako proiektua idatzita izango du Rezabal udal arkitektoak

Abenduko udalbatzarrean 4.717.735 euroko udal aurrekontua onartu zuten 2020rako eta inbertsio nagusiak ere zehaztu zituzten.

Bada, inbertsioen artetik handiena Plaentxi Eskolaren eraikinerako izango da. Hango jolastokira igotzeko eskailera zaharberritu nahi du Udalak, horretarako, 86.648 euroko inbertsioa aurreikusi. Iker Aldazabal alkateak esan duenez, Xabier Rezabal udal arkitektoak aurreratuta du proiektuaren idazketa. Gaurko, urtarrilaren 31rako, bukatu beharra du. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak dirulaguntza deia egin du halako obren kostu osoaren %60 diruz laguntzeko, eta Udalak deialdira aurkeztu nahi du. Behin proiektua idatzita, lehiaketa publikoa deituko dute lanak esleitzeko.

Parkeak, gimnasioa eta abar

Aurreikusitako bigarren inbertsio handiena, berriz, haur parkeetarako izango da. Patricia Borinaga zinegotziak azaldutakoaren arabera, 40.000 euroko partida dute horretarako eta bi lehentasun dituzte zehaztuta: eskolako jolastokiko haur parkea eta Txurrukenekoa berritzea.



Gimnasio berriarendako lekua.

Eskolako parkeari dagokionez, Borinagak esan du ikastetxean prozesu parte-hartzailea egin dutela, zelako parkea nahi duten erabakitzeko. Emaitzaren arabera proiektua idatzi ondoren hasiko dituzte obrak. Txurrukenekoari dagokionez, horretarako ere prozesu parte-hartzailea egin nahi dute, beraz, lehenengo hura abiaraziko dute.

Bestalde, Udalak beste 35.000 euroko partida bat aurreikusi du landa garapenerako. Alkateak dioenez, lehentasunak zehazten dabilta, haien arabera laguntasunak bideratzeko.

2020ko laugarren inbertsioa gimnasio berriko makinatarakoa da. 27.000 euro daude aurreikusita eta, oraingoz, 12.000 euro inguruko gastua egingo dute honako makina aerobikoak erosteko:



Eskolako jolastokirako eskailera.



Totem berria, Dolmenen Ibilbidean.

spinningeko lau bizikleta, korrika egiteko zinta, arraunerako makina eta eliptikoa. Maria Gallastegi kiroldegiko teknikariak azaldutakoaren arabera, muskulaziorako makinak egoera onean daude 2010az goerotik berritzen joan direlako. Beraz, halako ia guztiak igoko dituzte gimnasio berrira.

Bosgarren inbertsiorik handiena, berriz, Dolmenen Ibilbideari dagokio. 23.000 euro aurreikusi dituzte orain artekoak moduko jardueretarako. Hala, seinaleztapenarekin lotuta totem bana ipini berri dute Karakaten, Irukurutzetan eta Gizaburuagan. Bestalde, otsailaren 6an, Jesus Tapia Aranzadiko arkeologoak 2019ko indusketa lanen berri emango duen hitzaldia eskainiko du.

"Etorkizuna beltza ikusten dugu"

Urtarrilean bi urte bete dira "pentsio publiko duinak" eskatzeko protestak hasi zituztela. Batez beste, 60-70 herritarrek parte hartzen dute astelehenero. Haien artean izaten dira Juanita Placencia (J.P.), Inmaculada Elgeta (I.E.), Mari Carmen Carrasco (M.C.C.) eta Pura Corchero (P.C.).

Zela ikusten duzue igoera?

J.P.: Oso beltza. Igoerak miseria dira eta beste gauza guztiak gora eta gora egiten segitzen dute.

I.E.: Gutxi irabazten duenarendako txarrago oraindik. Eta gerokoa... iluna.

M.C.C.: Luze ari da egiten eta ez dute nahikoa igotzen. Ea kasu egiten diguten.

P.C.: Beltza, gero eta okerrago ikusten dut. Alde batetik igo egiten dituzte, eta beste alde batetik, kendu egiten dute.

Iragarri dute 0,9 igoko dituztela pentsioak...

J.P.: Niretako ez da nahikoa, horrekin ez daukagu ezer.

I.E.: Ez dute ematen igotzen den beste. Behera eta behera goaz.

M.C.C.: Gutxi dirudi, baina igo dezatela hori, besterik ez bada ere. Ea behingoz zerbait egiten duten.

P.: Ez da nahikoa. Gutxi da.

"IGOERAK MISERIA DIRA ETA BESTE GAUZA GUZTIEK GORA ETA GORA EGITEN SEGITZEN DUTE"



Juanita Placencia eta Inmaculada Elgeta.



Pura Corchero eta Mari Carmen Carrasco.

Zela ikusten duzue etorkizuna

J.P.: Zuendako, adibidez, beltza.

I.E.: Nire bizimoduarendako, horrela badoa zerbait igotzen, bueno. Baina besteendako... Gu guregatik bakarrik ez gabiltza, datozenengatik ere bai. Haiendako zer bizimodu dago ba?

M.C.C.: Guk etortzen segituko dugu, ea konponbiderik dagoen. Zer egingo dugu ez badute konpontzen?

P.C.: Gero eta okerrago gabiltza. Noski etortzen segituko dugula!

Odol-emateen aurtengo egutegia

Urtarrilaren 24an izan da odola emateko Odol Emaileen Elkarreak egin duen aurtengo lehen hitzordua. Helarazitako egutegiaren arabera, hona hemen urte amaierara bitartekoak: martxoaren 13a; maiatzaren 22a; uztailaren 17a; irailaren 18a eta azaroaren 20a. Ohi moduan, Itxaropena elkarteko areto nagusian, 18:30etik 20:30era.

Baserrietako plastiko bilketa

Baserrietako plastikoa batzeko hurrengo bi egunak otsailaren 19 eta martxoaren 18 izango dira. Siloa estaltzeko plastikoa, belar boletakoa, ortuan lurra estaltzekoa, plastikozko sarea, negutegietakoa eta negutegiko plastiko zuria batuko dituzte. Sokak eta plastikozko pentsu zakuak ere batuko dituzte, aparteko poltsa batean lagata.

Institutuko eraberritze lanak

Maiatzean hasiko dira Institutua zaharberritzeko obrak. Alkateak esandakoaren arabera, lanen hasiera atzeratu egin da Eusko Jaurlaritzako kontratazio departamentua "lanez gainezka" zegoelako eta ez baitute aukerarik izan tramitazioa egiteko. Hala azaldu dio Jaurlaritzako ordezkariak Soraluzeko Udalari.



Zenbait gidarik banden aldamenetik igarotzeko ahalegina egiten dute.

Abiadura murrizteko bandak

Herritarren artean zeresan handia eman dute Udalak Errabal eta Baltegieta kaleetan abiadura murrizteko ezarri dituen hiru bandek.

Herritar askok kalean eta interneteko sare sozialetan adierazi dutenez, abiadura murrizteko helburua egokia iruditu arren, oztopoak "handiegiak" dira eta ibilgailuei "gehiegi" erasaten diete.

Inkestaren emaitza

Plaentxia.eus-ek inkesta abiatu zuen herritarren iritzia jasotzeko asmoz eta inkesta horrek, egun bakarrean, 727 erantzun jaso zituen. Bandak egokiak ziren ala ez galdetuta,

ezezko erantzunak 649 izan ziren (%89,27), baiezkoak 72 (%9,90) eta 6 bakarrik (%0,83) izan ziren gaiak ez ziela inporta adierazi zutenak.

Kritikak sare sozialetan

Gaiak oihartzun handia izan du interneteko sare sozialetan ere. Askok salatu dutenez, oztopo handiegiak dira ibilgailuentzat, "gehiegizko kolpea" ematen dietelako. Zenbaitek, gidarien jokabide okerrekin eragin dezakeen arriskua aipatu dute, ohararaziz gidari asko bandak saihesten saiatzen direla eta horretarako autoa espaloian sartzen dutela. Planteatu dituzte alternatibak ere, esaterako: oraingo bandak ordezkatu eta leunagoak jartzea, abiadura semaforoak ezartzea, seinale gehiago...

Ez dituzte aldatuko "oraingoak"

Udaltzaingoak adierazi du "oraingoak" ez dituztela bandak aldatuko, ibilgailuen abiadura murrizteko ezarri zirelako eta funtzio hori egoki betetzen dutelako. Orain arte, hiru herritar izan dira ofizialki kexa aurkeztu dutenak.

Gaztetxearen etorkizuneko jarduna zehazteko iritzi-bilketa

Iazko uztailean Gaztetxearen ardura hartu zuen taldeak iritzi-bilketa burutuko du zubiko gune horrek etorkizunean izan behar duen oinarritzko jarduna zehazteko. Iritziak jasotzeko, dokumentu bat prestatu dute eta berau eska daiteke soraluzekogaztetxia@hotmail.es helbidera idatzita edo ekainera bitartean



Gaztetxea.

hilabeteko lehen martitzenetan, arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara bitartean egingo diren bileretara agertuta.

Bi urteko gogoeta prozesuaren ostean, iazko uztailean 5-6 laguneko taldea osatu zen, proiektu berria bultzateko asmoz. Zazpi hilabeteko jardunaren ostean, taldeak gune horren jardunaren gainean interesa izan dezaketen herritarren iritziak jaso nahi ditu, ondoren proiektu berri bat martxan jartzeko.

Armendi Jatetxea

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bildotsa
Ettxeko tritokak
Soufflea
Tel: 943 75 10 02



ELIZPE HORTZ KLINIKA

Zure genetik horri ikuska, punta puntako teknologekin lan egiten dugu. Cad Cam sistema berrizalka erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea
508, ALLUZE
Tel: 943 75 25 67
e-mail: elizpe.hk@gmail.com

Ordutegia:
Asteleheneratik ostiralera
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00



BOLIA TABERNA

Pirrook, ardiak, korbitutak
Gazte-giroko festa



Fanny Mertzeria

Arropak konpontzen ditugu
Santa Ana 22, behea - 688 81 53 92



Txoko

Eguneko menua, plater kombinatuak, hamburgerak, ogitarlekoak, ogitarlekoak, pizzaak, gaztaria...

Enkarguak egiten dira
Tel. 943 75 17 88



IZZAGUIRRE Igelberitza

Erakin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreformak • Era guztietako Igelberitza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 - 649 867 280



Jatorren placarra, bertatik bertara

Batzoki

eguneko menua
asteburuetan
karta eta rairoak

ogitarlekoak eta
hamburgerak
enkargu bereziak

famila eta
lagun arriko
beharriak

Donostia 943 75 20 35



Etxabe Harategia

- Etxera eramaten da
- Enkarguak hartzen dira
- Sorakuzko baserrietako produktuetan
- Etxeko bihoki eta bistakorrak

Etxaburueta 5
Telefonoa: 943 75 23 75



ARRANO taberna

Etxari eta gazte
etxeko plintxoak

Etxaburueta 6
Telefonoa: 943 75 24 09



Hortz klinika

Erreal 1
Tel.: 943 75 16 13

27 urteko esperientzia

Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.Z. 48.000.591

Katia Gustinne
Odontologoa
K.Z. 48.001.541

idontologia, protesiak,
odontopediatria, ortodontia,
inglantzak, estetika...
Zerbitzu radiologiko onak (3D):
ektaneria, orto eta tele.



KLB6

Kalebarren 6
943 07 20 28

Kalitatezko merkatu
moduluetan

Alpa Jarna
INFLAND

SOLID
ESKINAK

VERO MODA



JUAN MARI ARRANDEGIA

Arrano Irakoa
Etxera eramaten du pertsona
Enkarguak hartzen ditugu

MORRUTU PLAZA - 943 75 24 40



sutarako egurra salgai
pago-egurra, haritz-egurra...

SUMA
basolanak

img. 635 71 34 08



Kontulan

aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta aitortpenak • Administrazioa lantze
Tratamendu burokratikoak • Lan-arloko aholkularitza
Enpresen kontuzio/leialtzeak • Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. eko. 20190 Santxoa
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82



Euskalzaletasunaren alde:



Audientziak %64 egin du gora

Iaz, Plaentxia.eus-en audientziak %64 egin zuen gora, 300.000 bisitaren langa gaindituz.

2019an zehar, Plaentxia.eus-ek bere historiako hazkunderik handiena izan du, 2018tik %64 hazi baita. Webguneak iaz 305.000 bisita jaso zituen (2018an 196.866), egunean, bataz beste, 800 bisita.

Pil-pilean herri komunikabideko erredakzio batzordea pozik azaldu da lortutako datuekin: "Plaentxia.eus-en Soraluzeko aktualitateari jarraipen estua egiten diogu egunero eta horri esker webguneak erreferentzialtasun handia lortu du plazentziatarren artean". Erredakzioaren ustez, albiste kopuruarekin batera, urte hasieran webgunea berritu izanak eta orain bideoak zerbitzari propioan argitaratzeak ere lagundu dute webgunea erakargarriago egiten.

Hobetzeko asko

Hala ere, etorkizun hurbilean hobetzeko asko daudela uste dute eta 2020an horretan ahaleginduko dira. Bestek beste, aktualitateari kanpo dauden gai gehiago lantzen, ikusentzunezko gehiago eta hobeak ekoizten eta herritarren iritzi gehiago jasotzen. Aldizkarian ere bide horretatik jo nahi lukete, "eduki atal berriak txertatuz".

Eskerrak irakurle eta iragarleei

Erredakzio taldeak eskerrak eman nahi dizkie Plaentxia.eus eta Pil-pilean herri aldizkariko

irakurleei, elkarteko bazkideei, erakunde publikoei eta baita iazko urtean zehar euren iragarkiak jarri zituzten komertzio eta enpresei ere. "2020an ere profesionaltasunez eta inpartzialtasunez lan egiten ahaleginduko gara, plazentziatarrei kalitatezko informazioa eskaintzeko".

Albisterik ikusienak

1. Auto istripua Ansola parean. 4.498 bisita.
2. Aratosteetako mozorro lehiaketa. 3.292 bisita.
3. Sabin Mendizabal kartzelatik atera zenekoa. 3.292 bisita.
4. Espainiako loteria egokitu zenekoa. 2.823 bisita.
5. Zurrumu faltsua indarkeria matxistarekin lotuta. 2.088 bisita.
6. Indarkeria matxista kasua. 2.070 bisita.
7. Gaupaseroak gaiteroen kalejiran. 1.985 bisita.
8. Patria eta Guardia Zibilak. 1.714 bisita.
9. Sutea Korta baserrian. 1.448 bisita.
10. Itzuliko azken etapa Soraluzen. 1.207 bisita.

Aldasoron ardi batek hiru bildots

Aldasoro baserriko ardi batek hiru bildots egin berri ditu, hirurak beltz beltzak gainera. Aitziber Aldazabalek azaldu digunez "nahiko ohikoa da ardi mota honek bildots bat baino gehiago egitea eta ardi honek sarri egiten ditu bat baino gehiago."



Hiru bildotsak ardiarekin.

Berbalagun eta Auzoko zabalik

Otsaila amaitu bitartean zabalik dago Soraluzeko Berbalagun eta Auzoko egitasmoetan izena emateko aukera eta zabalik izango da otsailaren amaierara arte. Berbalagunak astean ordubetz batzen dira eta momentu honetan lau talde daude martxan hainbat ordu ezberdinetan. Bestalde, Auzoko saioak asteartero eskaintzen dituzte Elkartegian, goizeko 11:30ean. Informazio gehiago jaso edo izena eman nahi baduzu, jo Pil-pilean Euskaltzaleen Elkartearen bulegora.



EH Bilduko zinegotziak udalbatzarrean.

EH Bildu elkarlanerako prest

Koalizio abertzalearen batzarrak "Alkarrekin filosofian oinarrituta" lan egitea hobetsi du.

Urtarrilaren 18an, Soraluzeko EH Bilduk batzarra egin zuen antzokian eta bertan, militanteek koalizioak datozen lau urteetan oposiziotik garatuko duen lan-filosofia eta landuko dituen helburu eta

lan-ildo nagusiak onartu zituzten.

"Alkarrekin filosofia"

Lan-estiloari dagokionez, 'Alkarrekin filosofia' hobetsi du, eta udal aurrekontuak

onartzeko batzarrean aurreratu zuen bezala, udal-gobernuari proposatu dio proiektu estrategikoetan elkar hartuta lan egitea; Bilduren ustez, Soraluzeren egoera ekonomiko kaskarrak elkarlanean jardutea eskatzen du.

Hiru lan-lerro nagusi

"Herrigintza-udalgintza" ri dagokionez, hiru lan lerro nagusi lehenetsi dituzte: hirigintza, garapen ekonomikoa eta hezkuntza. Hirigintzan, plan orokorra izango dute langai nagusi, Olaldea, SAPA eta Pascual Txurrukako egitasmoei jarraipena eginez; Garapen ekonomikoaren arloan, berau garatzeko proposamenak aurkeztuko dituzte; eta, Hezkuntza proiektua "berbideratzeko ahalegina" egingo dute.

Bestelako gaiei jarraipena egingo dieten arren, batez ere, hiru lerro horiek landuko dituzte, "alderdi interesen gainetik Soraluzeko premiak jarriz eta herritarrentzat erakargarri gerta litezkeen dinamika zein gunek" bultzatuz.

Asanblada irekia deitu dute M8 plataforma osatzeko

Herriko mugimendu feministak asanblada irekia deitu du martxoaren 8ari begira, emakumezkoen plataforma osatu eta egitaraua prestatzen hasteko. Lehen bilkura hori, otsailaren 5ean egingo dute Etxaburuetako Elkartegian, arratsaldeko 18:30ean. Herriko emakume guztiak, "gazteak zein helduak", gonbidatu

dituzte bilerara, "elkarpenak egin eta antolakuntzan parte har dezaten".

Iaz, martxoaren 8ko mobilizazioak oso arrakastatsuak izan ziren eta aurten ere espero dute emakume ugarik parte hartuko dutela datozen asteetan antolatuko dituzten jarduerara eta mobilizazioetan.



Iazko Martxoaren 8ko mobilizazioa.

Euskaraz trebatzen

TESTUA ETA ARGAZKIAK: EGOITZ UNAMUNO ETA SARA CARRASCO

Asko dira herrian, modu batera edo bestera, euskara ikasten diharduten herritarrak. Guztira 70 herritar inguru ari dira parte hartzen herrian martxan diren egitasmoetan. Euskaltegian 30 ikaslek dihardute euskara ikasten: 26 lagunek saio presentzialetan jasotzen dituzte eskolak eta 4 ikaslek autoikaskuntza metodoaren bitartez.

Bestalde, Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak bultzatzen duen Berbalagun egitasmoaren asteroko hitzorduetan, 25 herritarrek praktikatzen dute euskara, lau taldetan banatuta, eta Pil-pileanek kudeatzen duen Auzoko egitasmoan, berriz, euskarara hurreratzeko eskaintzen dituen berarizko saioetara 10 herritar joaten dira eta HHIIn ematen diren saioetan 15 herritar inguruk dihardute. Bejondeizuela!





GUTUNAK

Soraluzen ere txakurrak oinutsik

IRATI TREBIÑO

Auzolanean margotu dute eskola aurtengo Gabonetan. Zoriontzeko moduko ekimena. Ni behintzat asko poztu nau, herritarrak batu, beharrak aztertu eta besterik gabe horiei erantzuteko gai garela ikusteak. Tira, besterik gabe ez, lan eginez. Zorionak, beraz, batu ziren guztiei eta batez ere aurretik lan izugarria egin duen talde eragileari. "Baina hori ez al luke Udalak bere gain hartu behar?", galdegin zidan lagun batek. Egia esan, ez dakit. Ez dakit udala nora begira dagoen eta. Ah bai, txakurren txize. Herrian ez daukagu ganorazko kultur azpiegiturarik, langabezia tasak, eta baita pobrezia tasak ere, beldurtzeko modukoak dira, eraikin publiko

askotan irisgarritasuna utopia bat da, alokairuak lortzea gero eta zailagoa, zenbait kirol ekintzetarako lekurik ez eta gurusoek hartu behar euren gain ardura guztia, zabor edukiontzia gainezka, gure nagusien zaintza baldintzatua, baserri askotarako bideak negargarri... Baina lasai, txakurren txizaren arazo larria kontrolpean da jada. Ba, zer nahi duzue esatea, komun publikoak nola dauden ikusita niri ere edozein bazterretan txiza egiten hasteko gogoa sartzen zait, ze ez dut uste zubiko komunak ozpin pixkatekin konponduko direnik. Baina izan gaitezen zibiko, eta Soraluze hobeto bat izango dugu!

"Lorontzitik kanpo ari naizela txiza egiten" pentsatuko du batek baino gehiagok, auzolanak eta txakurren txizek zerikusirik ez daukatela, eta

asmo txarrekoa dela biak idatzi berean batzea, baina herria dagoen moduan egonda, txizak ozpinez bustitzeko udal ordenantza bat ateratzea muturreko fribolitate iruditzen zait.

Beti egongo da ilargia seinalatu eta atzamarrari begiratzen dionik. Kontua apurtxo bat kezkarriago da atzamarrari begiratzen dioten horiek herriaren "arduradunak" direnean. Eskerrak, herriaz arduratzen direnak herritarrak diren. Herritar zibikoak baino batu eta antolatzeko gai diren herritarrak, eta gauero ilargiari begira gelditzeko tartetxo bat hartzen dutenak.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

HAUSNARKETA

Abiadura murrizteko banda berriez

Zeresan ugari eman dute Udalak Errabal eta Baltegieta kaleetan abiadura murrizteko ezarri dituen banda berriek. Gaia bolo-bolo dabil herritarren artean.



GOTZON ODRIOZOLA
UDALTZAINBURUA

"Lehentasuna oinezkoiei eman zaie. Bizkorregi pasatzen ziren ibilgailuak eta arriskua handia zen. Orain polikiago pasatzen dira; segurtasuna handitu egin da. Lurrikara eragin dute, baina hartu beharreko neurria zen. Herrian dauden beste bandak ez dira horren eraginkorrak".



MIGUEL AVELLANEDA
TAXILARIA

"Ez badituzte aldatzen, auto berria erosi beharko dut. Udan, Frantzia eta Portugalen gidari ibiltzen naiz eta sekula ez dut halakorik ikusi inon. Autoa geratu egin behar da horiek igotzeko; herriko beste bandak, behintzat, mugimenduan pasa daitezke. Hor ez naiz ausartzen".

ZIR(R)IKA

P.G. ABIADURA MURRIZTEKO BANDAK



PUNTUA



MAITE GARMENDIA

Kanpora joan behar inguruko egoeraz jabetzeko

Azkenengo hiru hilabeteek asko lagundu didate nire inguruan dagoen egoeraz jabetzen. Orain dela egun gutxi bueltatu nintzen Belgikatik eta bizi izan ditudan esperientziei buelta pare bat eman ondoren, konturatu naiz 18-23 urte arteko gazte askok oraindik gauza asko dituztela ikasteko.

Europa eta munduko beste herrialde askotako gazteekin bizitzeko eta ideiak elkarbanatzeko aukera izan dut eta, egia esan, sorpresa ugari hartu ditut. Bakoitzak bere kultura, hizkuntza eta pentsatzeko moduak ditugu, baina gauden garaian gazte hauek dituzten pentsaera asko beldurgarriak iruditu zaizkit. Esaterako, belgikar gehienek bide bat jarraitzen dute, haien gurasoek erakutsi dietena, eta ez dira bide hortatik irteteko gai, gauza berriak probatzeko beldur direlako, eta ez direlako fidatzen.

Klasean zein kalean esaldi homofobo eta xenofoboak entzutea tokatu zait. Tristeena da ez direla kontratuzen zer nolako gauzak esaten dituzten. Hara joan ginen euskaldunok inguruko gauza "normalei" buruz iritzia ematen genuenean, kanpotarrei asko kostatzen zitzaaien gu ulertzea, guk daukagun askatasun hori ulertzea. Guri hotzak garella esaten digute, baina, egia esan, herrialde hauetako jendea askoz hotzagoa da.



AGUS JAUNTSARATS
HERRITARRA

"Lehen aldiz autoarekin pasatu nintzenean, esan nuen: Zer da hau! Egia da oso handiak direla. Baina orain seguru sentitzen naiz errepidea zeharkatzean, orain autoak geratu egiten dira. Orain badakigu, nahiz eta autoa datorrela ikusi, errepidea lasai gurutzatu ahalko dugula".



FELIX UNANUE
MEKANIKOA

"Exajerazioa iruditu zait. Gauza bat da abiadura murriztu beharra baina banda horiek pasatzeko autoa gelditu egin behar da eta hori ez dator bat gutxieneko abiadurarekin. Bestalde, araututako abiaduran joanez gero, amortiguadoreak izorratzeko arriskua dago".

Eragozpen guztien gainetik, futbolari

Bada baloiren bat? Eta beste bat? Bota! Pasa! Halakoxe berbetagaiak izan zituzten joan den urtarrilaren 22an Ezoziko Futbol Zelaian elkartu ziren 13 lagunek. 8 urte zituen gazteenak eta 40 urte zaharrenak. Eta guztiek zuten ezaugarri komun bat: futbola maite dute.

Testua: **Ubane Madera.**
Argazkiak: **Fernan Oregi**
Produkzio lanak: **Arrate Gisasola.**

Erreportaje honetako solaskideek, eragozpen guztien gainetik, futbolari izatea lortu zuten edo lortu dute. Gainera, hainbatek paregabeak eskuratu zituzten profesional izan barik, futboleko profesional gehienek gustura bereganatuko lituzketenak: Espainiako Supercopa, Txapeldunen Ligako txapeldunordetza, Erreginaren Kopako txapeldunordetza, Espainiako Liga Nazionala...

Orain, haietako hainbati omenaldiak eta aitortzak egin dizkiete, zailtasun guztiei aurre egin eta emakumezkoen futbolean egin duten ibilbidea aitortzeko: abenduaren 28an Eibartarrak taldeko jokalaria ohiak omendu zituzten, tartean hiru soraluzetar. Irailean, berriz, Bergara Kirol Elkarteko lehen emakumezko taldeko futbolari izan ziren omenduak, tartean lau soraluzetar.

Oraindik ere "pribilegio" izaten jarraitzen du

Gaur egun, Euskal Herrian badira nesken 40 bat futbol talde. Bik Espainiako Lehen Mailan jokatzeko dute: Athletic-ek (2002an sortua) eta Realak (2004an sortua). Baina maila gorenean egon arren, bertako jokalaria batzuk bakarrik dute futbola ogibide eta oraindik ez dago argi lortuko duten emakumezko futbolari guztiendako lan-baldintzen hitzarmen bateraturik. Borrokan segitzen dute. Izan ere, Euskal Herrian jokatu zen emakumezkoen lehen partidutik ia 50 urte pasa badira ere, emakumeentzat oraindik ere pribilegioa da futboletik bizitzea. Futbolista izandako eta orain hala diren hainbat belaunalditako jokalarik euren esperientzia partekatu dute.

"Futbolearen jokatu ahal izatea demasa zen"

Arrate Gisasola Soraluzen bizi den eibartarra eta Maialen Galarraga soraluzetarra Eibartarrak FT taldeko jokalariz izan ziren 90eko hamarkadaren hasieran. Bestelako garaipenen artean, 1999an Supercopa irabazi zuten.

Zela hasi zineten futbolean?

Arrate Gisasola. 13 urterekin fitxa faltsuarekin hasi nintzen Eibartarrak taldean, 14 urtera arte neskek ezin baitzuten futbolearen egin. Lehentxeago, ikastolan ibili nintzen, futbitoan. Mutilek, aldiz, bai, benjaminetatik jokatu ahal zuten futbolean. Gogoan dut zela egoten nintzen haiei begira, inbidiak jota... 21-22 urtera arte jarraitu nuen.

Maialen Galarraga: 14 urterekin hasi nintzen futbolean, zuzenean Eibartarrak taldean. Hori bai, lehenago Plazentzian ibili nintzen, baina, futbitoan, Madarirekin. 6. mailara arte zela uste dut. Sasoi hartan, Soraluzen nahiko neska geunden futbolean; ni Eibarren hasi nintzen Ikastolako Ramon irakasleari esker. 22 urterekin laga nuen.

Zelako baldintzak zenituzten?

A.G. Unbe egin barik zegoen eta entrenatzeko zelai bila ibiltzen ginen. Hasierako partiduak Mintxetan jokatzeko genituen. Behin Unbe eraikita, han egiten genuen dena. Hori bai, gaur egun eskoletan edo Soran maila baxuenetan daudenak moduan ibiltzen ginen errifak saltzen, txosna jartzen... nahiz eta Liga Nazionalean egon eta Estatu mailan lehiatu. Neskek ez



Arrate Gisasola eta Maialen Galarraga, Eoziko Futbol Zelaian.

genuen baliabiderik, baina txiki-txikitatik jokatzeko nuen futbolearen, plazetan eta. Oso barneratuta geneukan futbola gure parte zela eta futbolearen jokatu ahal izatea niretzat demasa zen.

M.G. Ni 14 urterekin hasi nintzenean, Lerunen (Elgoibarren) hasi nintzen. Zelaietan entrenatzen genuen, asteazkenetan Ipuruako anexo zaharra lagatzen ziguten. Egun hori izaten zen futbolearen jokatu ahal genuen egun bakarra; bestela kiroldegian entrenatzen genuen, eskaileretan eta. Barikutan, berriz, Sorako zelaia lagatzen ziguten. Txosna muntatzen genuen Arraten... Ligaren azken fasea jokatzera Burgosera joan ginenean lortu genuen lehen txandala

LIGA NAZIONALEAN
EGON ARREN, DIRUA
GUK LORTU BEHAR
IZATEN GENUEN

denondako, guztiendako ekipazio berdina. Futbol botak jarri eta zelaian jokatzeko demasa zen!

Zela ikusten duzue egoera gaur egun?

A.G. Borrokan dabilta oraindik. Aipatzekoa da, futbol mailari begira, guk jokatzeko genuen garaia ikusi eta oraingoa ikusi, demaseko alde dagoela. Fitxa kopurua, erraztasun eta aukera gehiago... Bestalde, aipatuko nuke nesken futbolak badituela berezitasun teknikoak eta erakargarriagoa ere izan daiteke ikusteko; hori Azkargortak ere esaten du.

M.G. Askok aldatu da, nik bizi izan nuenetik orain dagoenera, bai. Hobetzerik badago, noski, baina Realean eta Athleticken ilusio handiagoa dute borroka egiteko, nomina batzuk badaude, primak... beste maila bateko liga ere badago, ekipamendu aldetik asko hobetu da... erraztasun handiagoak dituztela esango nuke; klubak diruarekin sartu dira.

"Nesken kirola beste maila batean dago"

Irati Trebiñok, Hiart Arluziagak eta Edurne Unamunok Bergara Kirol Elkarteari esker jokatu ahal izan zuten futbolean (beste soraluzetar batzuekin batera); Andrea Dominguez soraluzetarrak, berriz, bertan dihardu gaur egun, Soratik eta Eibartik pasa ondoren.

Zela hasi zineten futbolean?

Hiart Arluziaga: Futboleant jokatu ahal izatea gure ametsa zen; Soraluzen ea taldea sortuko zen ibili ginen... Helburua futboleant jokatzea zen, zela edo hala. Hori lortzeko leku guztietara mugitzen ginen, bizitza joaten zitzaigun. Bergarako sortu zenean... azkenean! Gainera, ekipazioa eta guzti eman ziguten, denok berdin jantzita... Hori demasa izan zen. 14-15-16 urterekin futboleant ibili ginen, gero, 18 urte egin genituenean, laga egin genuen.

Irati Trebiño: Ikastolan futbitoan jokatzen genuen. Bagenekien 8. maila bukatutakoan futbol barik geratuko ginela. Saiatu ginen Soran ea nesken taldea sortzerik bazegoen; azkenean, baina, Bergaran sortu zen. Gutariko batzuk Bergarako Institutura joan ginen ikastera eta hango BBB 2. mailakoek jakin zutenean guk futbitoan jokatzen genuela, Bergaran taldea sortu behar zela esan ziguten eta sartzeko aukera eman ziguten. Taldea sortu eta berehala, asko hasi ginen futboleant, entrenatzailea ere gertu zegoen...

Edurne Unamuno: Gu ere Madarirekin hasi ginen



Andrea Dominguez, Irati Trebiño, Hiart Arluziaga eta Edurne Unamuno.

futbitoan, Ikastolan. Orduan ez zegoen besterik neskendako. Txapelketak eta kanpoan jokatzen genituen, baina besterik ez. Orduan, guretzat, Bergarako taldea sortu eta hara ailegatzea izan zen... uau! **Zela ikusten duzue egoera gaur egun**

E.U. Oso aldatuta ikusten dut. Orain partidu bat ikusten duzu eta maila polita dute jokalariek. Astean hirutan entrenatzen dute, jantziak ere badituzte... Hori bai, ikusten dut beti orduak eskasenetan ipintzen dizkietela partiduak. Emakumeak sartu dira, bai, baina ez dakit gauzak asko aldatu diren.

I.T. Aukera handiagoak daude, baina... nire semearen ekipoan, adibidez, 20 mutilen artean, neska bakarra dago taldean. Aukerak badaude, baina kirolarekin lotuta

NESKA IZATEAGATIK
BESTE BALDINTZA
BATZUK IZATEA EZ ZAIT
ONDO IRUDITZEN

emakumeari buruzko ikuspuntua ez da horrenbeste aldatu.

H.A. Orokorrean emakumeen kirola beste maila batean dago, eta horren adierazgarri da futbola. Futboleant emakumezkoen gero eta erreferentzia gehiago daude, baina egiteko asko dago.

Andrea Dominguez: Ni Soran hasi nintzen, bi urte egin nituen Eibarren eta orain Bergaran nago; han ondo gaude. Hala ere, desberdintasun handiak daude nesken eta mutilen artean futboleant jokatzerakoan. Adibidez, ni aurtan hasi naiz futbol-11 jokatzen. Bestalde, goi mailako neskek oraindik borrokan dabilta, mutilen piloa ordaintzen diete eta neska izateagatik bizitzeko beste baldintza batzuk izatea ez zait ondo iruditzen. Niri gustatuko litzaidake, mutilen bezala, futbol-zelaiak betetzea, soldata parekoa izatea... Oraindik ez dut hori posible ikusten, baina hemendik urte batzuetara akaso aldatuko da.

"Aukerak borrokaren bidez lortu ditugu"

Mireia Lamariano Nieves, Alana Berraondo eta Maria Olabarria Sora Futbol Taldeak izan duen nesken talde bakarreko jokalarizandakoak dira. Aipagarria da Berraondo eta Olabarria futboleant dabiltzala gaur egun; 20 urtetik gorako Soraluzeko neska futbolari bakarrik dira.

Non jokatzen duzue? Eta zelako baldintzak dituzue?

Maria Olabarria: Elgoibarren. Ni 13 urterekin Soran hasi nintzen eta Mondran jokatu nuen orain dela 5 urte. Orain, berriz, Elgoibarren nago, futbola gustatzen zaidalako. Gurea ekipo preferentea izan arren, kadete eta infantil mutilek dute neskek baino lehentasun handiagoa. Adibidez, guk 20:30etik 22:00etara entrenatzen dugu; mutilek primak dituzte eta guk ez... Nik ia 300 euro ordaintzen ditut Elgoibarren. Ekipazioa ematen didate, baina jokatzeari lagatzen badiot, bueltatu egin behar dut. Maila baxuagoa izaten segitzen dugu. Gainera, umeak bezala tratatu izan gaituzte. Kanpora begira polita ematen du, baina...

Alana Berraondo: Maria atezaina da eta ni haren entrenatzailea. Pentsa, Maria Elgoibarren hasi zenean, ez zioten ezta entrenatzailearik ipini, neska zelako, eta neu hasi nintzen hura entrenatzen.

Errazagoa izan zen futboleant jokatzen hastea?

Mireia Lamariano: Eskola kirolean hasi ginen, 3-4 ginen. Lehenengo mutilekin, eta gero lortu genuen nesken taldea egitea Soran. Erregionalean ibili



Maria Olabarria, Alana Berraondo eta Mireia Lamariano Nieves.

ginen, baina urtebeteant taldea desegin zen. Gero, infantilen taldea sortu zen, neu eta Alana ibili ginen infantilak entrenatzen. Nik Bergaran, Soran eta Elgoibarren jokatu nuen. Bergarara joan nahi genuen, Elgoibarren ez genuelako lar jokatzen, baina ez ziguten askatasun kartarik ematen. Orduan laga nuen. Adibidez, Bergaran ematen ziguten ekipazioa bigarren edo hirugarren eskukoa zen. Beti izan gara azkenak. Dauden aukera guztiak, gainera, borrokatuta lortu ditugu. Sorako nesken taldea sortu ahal izateko Alanaren aitak bere burua eskaini behar izan zuen entrenatzeko; tabernako barra gurasoek zabaltzen zuten, mutilen partiduetan Sorakoek zabaltzen zuten arren; kamisetako babeslea guk lortu

ORAINDIK GAUZA ASKO
ALDATU BEHAR DIRA,
BATIK BAT, HEZKUNTZAN
ETA GIZARTEAN

genuen... Gainera, astean behin bakarrik lagatzen ziguten zelaian entrenatzen, bestela kiroldegian entrenatu behar genuen. Mutilek primak kobratzen zituzten eta guk ezertxo ere ez... Oraindik inork ez du ahaleginik egiten nesken futbola bultzatzeko.

A.B. Neure kintan neu nintzen neska futbolari bakarra. 10 urterekin, Eibartarrak taldeak fitxatu ninduen. Barikutan Lasalleko patioan entrenatzen ginen eta Ipuruako anexoan ere bai, hareazkoa zen orduan. Eibartarrak-Eibarren 8 bat denboraldi egin nituen. Gero ni eta beste batzuk Sorako taldera etorri ginen. Hura desegin zenean, Elgoibarren urtebete eta, gero, Bartzelonako talde batean. Jokalari moduan azken urtea Mutrikun eman nuen. Neskek futboleant jokatzeako babes eta laguntasun handia behar da oraindik. Goi mailan saltoa egon da; orain etxetik ikusi ahal dugu nesken partidu bat, baina gauza asko aldatu behar dira, hezkuntzan eta gizartean.

"Gustatuko litzauguke neska gehiago animatzea futbolera"

Oihane Rodriguez (Sorako futbol eskola), Sara Oruesagasti (Sora), Laida Sanchez (Sora) eta Naroa Zubiaurre (Eibar), neska kirolariak dira. Haiek normal bizi dute neska izan arren futbolean (eta beste kirolean) jokatu ahal izatea, baina ez da ikusten eurak moduko neska askor udalerrian.

Oihane Rodriguezek dioenez, "zoritzarrez, oraindik batzuk pentsatzen dute futbola mutilentzat dela eta dantza neskentzat". Berdin pentsatzen dute besteek ere: "Mutil askok, gainera, uste dute neskek baino hobekak direla futbolean. Guri gustatuko litzauguke neska gehiago futbolera animatzea eta guk nagusitan profesional



Oihane.R., Sara.O. Laida.S, eta Naroa Z.

izateko aukera izatea. Jokalari txarra izateak ez du inporta, jokatu egin behar da. Guk, adibidez, (Sarak eta Oihanek) hasieran ez genuen etorri nahi, baina mutilekin jokatzen hasi eta...". Eskaera ere egin dute:

Soran nesken taldea nahi dute eta ahalegina egitea taldea sortzeko nahiko lukete.

Eibarko jokalaria Naroa Zubiaurrek uste du asko aldatu dela egoera, baina... "Adibidez, Eibarren, neskek Institutuko 3. mailara arte zelai txikian jokatzen dugu, futbol-8. Mutilak, berriz, Institutuko 1. mailan hasten dira futbol-11 jokatzen, zelai handian. Neskek mutilek beste indar ez dugula diote eta askotan hori ez da horrela. Gainera, moldatuko ginatete. Hala ere, askok diote nesken futbolak ez duela batere balio... Neskei esango genieke futbolean jokatzen segitzeko. Eta agintariei: Ea baldintzak aldatzen diren behingoz!"

Sagardotegira goaz

EGUNEKO PLANA:

- 12:45ean irtengo gara Soraluzetik (Estaziñoko geltokitik) eta Usurbilgo Arratzain sagardotegira joango gara musikariz lagunduta
- Bazkal ostean, Astigarragara joango gara musikariekin.
- Gauerdiko 00:00etan autobusa hartuko dugu Soraluzera bueltatzeko

Eguna: martxoak 28, zapatua

Prezioa: 40 € / 45 € bazkide ez direnek

Izena emateko: pilpilean@pilpilean.eus / 605706 086

Plaza-kopurua: tokia gorde dugu 40 lagunentzako

TXOTXXX egiteko gogoak batzen gaitu!

PIL-PILEAN

GURE ESKU



Ixa Rodriguez Elgoibarko boxeo jaialdian, iaz.

Martxoaren 14an, boxeo gau-bela

Ixa Rodriguezek etxean egingo du profesional mailako 6. borroka; herriko eta inguruko beste boxeolari batzuk ere borrokatuko dira

Martxoaren 14an, 20:00etan, boxeo jaialdia izango da Arane kiroldegian. Boxeo izarren artean, Ixa Rodriguez, Ousama Hina eta Adur Odriozola soraluzetarrak borrokatuko dira. Haiekin batera, Sorabox

taldearekin, Bergarako Josu Zalakain, Galdakaoko Oibar Artetxe eta Getxoko Anton Vazquez boxeolariak ere borroka egingo dute. Datozen asteotan zehaztuko dituzte aurkariak.

Guztiendako luntxa

Boxeo borrokaldirako pisaketa, berriz, bezperan, martxoaren 13an, egingo du Ixa Rodriguez boxeolari profesionalak, Gila tabernan, 17:00ak-18:00ak inguruan. Mutil amateurrek, berriz, zapatuan, 17:00etan igoko dira baskulara, haiek ere Gilan.

Aurten, gainera, berritasunarekin dator boxeoarekin hitzordua: ekitaldiaren amaieran, luntxa emango dute Gila tabernan. Doan izango da, eta nahi duten guztiendako, kirolari zein ikusle: "Boxeozale guztiok izaten dugu elkarrekin egoteko gogo, baina normalean, boxeo jaialdia amaitzen denean, bakoitza bere etxera joaten da. Luntxa emanaz, guztioi elkarrekin egoteko aukera eskaini nahi diegu", esplikatu du Ixa Rodriguezek.

Boxeo jaialdia ikusteko sarrerei dagokienez, berriz, oraindik ez daude salgai; Plaentxia.eus atariaren bitartez jakinaraziko da noiz erosi ahalko diren. Gila tabernan edo kiroldegian eskuratu ahal izango dira.

Euskal Ligan, gomazko paletan eta errendimendu mailan lehian

Soraluze Pilota Elkarteko jokalaria buru-belarri dabilta, besteak beste, hiru txapelketatan parte hartzen baitabilta urte hasieratik.

Batetik, Euskal Ligako nagusi mailan, eskuz binaka dihardute Manex Balerdik, Ander Muruak eta Gorka Santamariak. Orain arte hiru partidu jokatu dituzte eta hirutik bi irabazi. Bi

asteburu barru dute hurrengo hitzordua, kanpoan.

Bestetik, gomazko paletan, Udaberri Txapelketan, nagusien mailan Jon Herizek eta Jurgi Rasconek jokatu dituzten hiru partiduetatik bi irabazi egin dituzte. Soraluzeko bikoteak gaur, Elgoibarko bikotearen kontra jokatu du, 19:00etan, Arane Kiroldegian.

Eta azkenik, Errendimendu mailan, infantil mailako Aiert Losada eta Mikel Caramanzana (lehen mailan) eta Eki Amuategi eta Iker de los Santos (bigarren mailan) dabilta lehian.

Lehiaketa horiek gutxi ez, eta iazko urritik Soraluze da benjamin eta alebin mailetan eskolarteko pilota jardueretarako egoitza. Hori dela eta, zapaturo pilota partiduak izaten dira Arane kiroldegian, 16:00etan hasi eta iluntzera arte.



'Ikimilikiliklik' obraren eszena bat. MARIE DE JONGH

Jokin Oregiren lan berria abian

Urtarrilaren 21ean eta 22an Bilboko Arriaga antzokian estreinatu ondoren, bikain abiatu du ibilbidea Jokin Oregik zuzentzen duen Marie de Jongh konpainiaren obra berriak: 'Ikimilikiliklik'

Jokin Oregik berak idatzitako izenburu bereko ipuin batean oinarrituta dago *Ikimilikiliklik*. Beldurra ditu ardatz, eta Eki izeneko emakume baten bizipenak baliatuz kontatzen da istorioa: umetan sorginen beldur zen Eki neskatoa, baina urteen poderioz, besteen begietara sorgin bilakatzen da. Hark lagun mina du armiarma bat eta armiarmak, umeak eta nagusiak kontatuko dute ipuina.

Bestalde, ikuskizunak badu beste ezaugarri nabarmen bat: konpainiak, bere historian lehen aldiz, keinuzkoa ez den ikuskizuna taularatu baitu.

Obrako aktoreak honakoak dira: Ana Meabe eta Aiora

Sedano txandakatuko dira Ekiren paperean; Juana Palacios (14 urte) eta Leire Omeñaca (11 urte) bilbotarrak txandakatuko dira umearen paperean, eta armiarma Maitane Sarralde dantzaria eta akrobata da. Eszenografiak Ikerne Jimenez arduratzen da, musikaz Adrian Garcia de los Ojos bilbotarra, jantziez Kataluniako Rosa Sole eta argiztapenaz Javier Gartzia.

Azken urteotako lanekin alderatuta (*Amour* eta *Izar*), formatu txikiko ikuskizuna da *Ikimilikiliklik*. Jokin Oregik esplikatu duenez, *Izar* eta *Amour* ikuskizunak martxan daude, eta "beste plaza batzuetara bideratutako" formatua nahi zuten obra

berriarendako. Horrexegatik, *Ikimilikiliklik* obrako pertsonaia nagusiak txandakatu egingo dira, konpainiaren gainerako lanak aldi berean egiten jarraitu ahal izateko. Izan ere, lanez lepo dabilta. Adibide bat: otsailak dituen 29 egunetan, 23 emanaldi lotuta ditu Marie de Jongh konpainiak *Amour*, *Izar* eta *Ikimilikiliklik* taularatzeko.

Frantzian ere hasi dira

Izan ere, osasuntsu dago Maire de Jongh konpainia: "Lekutxo hartuta dugu. Ez bakarrik Euskal Herrian. Estatu mailako MAX saria denbora errekorrean jaso genuen, 10 urteko ibilbidea generamanean. Orain arte 40-50 urte daramatzaten konpainiei aitortu diete sari hori", dio Jokin Oregik.

Etorkizunaz galdetuta, berriz, hark dio Frantzian lan egitea eta obren kalitateari eustea dituztela ipar: "Amourrekin eta Izarrekin Frantzian sartzen ari gara. Oso harrera ona izaten ari gara, oso pozik gaude. Bestalde, batez ere Amourrekin, sona handiko sariak jaso genituen. Harrezkero, erakunde garrantzitsuak gure lanarekiko interesa erakusten ari dira. Babestuago sentitzen zara, baina aldi berean, erantzukizun handiagoa exijitzen du horrek. Maila ahalik eta handiena eman behar da eta hori beste erronka bat da, urratsez urrats gure ikuskizunen maila handitzen joatea".

**OTSAILAK DITUEN 29
EGUNETAN 23
EMANALDI LOTUTA
DITU MARIE DE JONGH
KONPAINIAK**

Mozorroak janzteko hiru egun

Barikuan, otsailaren 21ean, Euskal Aratosteekin hasi eta martitzenean, otsailaren 25ean, Liskerren dantzaldiarekin bukatuko dira Aratusteak

Hasi da Aratuste giroa igartzen udalerrian. Plaentxi Eskolak ipini ditu barikuan egingo duten Euskal Aratosteetarako jantzien ereduak eskola sarreran.

Bestalde, LH1etik LH6. mailara arteko sei taldek (140 bat umek) eman du izena Aratuste martitzenean kiroldegian dantzaldia egiteko. Zentroko zapatuko Bertsio Gaua abian da eta gutxienez bi musika-taldek eman du izena. Kuadrillak ere hasi dira mozorroak prestatzen, batzuk karroza eta guzti.



lazko irabazleak.

Sariak bikoiztuta

Aratuste-batzordearen proposamenari eutsita, Animaliak da mozorrotzeko gaia. Azken urteotan bezala, mozorro-lehiaketa izango da zapatuan. Parte hartzeko taldeka aurkeztu behar da eta talde-argazkia atera beharko da otsailaren 22an Kontzejupean ipiniko duten photocallean, gero honako whatsapp zenbakira bidaltzeko: 688 61 36 98. Herritarrek Plaentxia.eus atariaren bitartez eman dezakete botoa.

Aurten, gainera, sarien kopurua bikoiztu du Udalak: 300 euro eskuratuko ditu lehenak, 200 euro bigarrenak eta 100 euro hirugarrenak. Aratuste martitzenean emango ditu sariok, Liskerren dantzaldiaren atsedendian.

Anariren kontzertu ederra

Joan zen barikuan, Anarik kontzertu ederra eskaini zuen Zentroan (Gaztetxean), aretoa jendez bete-bete eginda zegoela.

Kontzertua hasi baino ordu erdi lehenago hasi ziren hurreratzeko ikusleak Zentroko atarira. Ikusle gazteak ziren gehienak eta inguruko herrietatik etorritakoak asko: Elgoibartik, Azkoititik, Bergararik... Kontzertua hasi zenerako, lokala jendez beteta zegoen. Denera, izango ziren ehunen bat ikusle.

Azkoitiko kantariak hasiera hasieratik adierazi zuen gustura zegoela, hurbileko jendez



Anari.

inguratua, gustuko lekuan, gaztetxean, eta bere lehen pausoak ematen lagundu zioten gaztelupetarren herrian. Ondorengo ordu eta erdian, hurbiltasuna, pasioa eta musikari handien presentzia transmititu zituen Gaztetxeko tablaturatik eta kantu askotan ikusleek lagundu zioten kantuan.

Joan zen barikuan, giro berezia eta ederra sortu zen Zentroan.

Irakurketa feministaren hurrengo saioa otsailaren 25ean

Irakurketa feminista ikastaroaren hurrengo saioa otsailaren 25ean egingo dute Zentroan (Gaztetxean) eta bertan Uxue Alberdiren *Jenis Joplin* liburua izango dute aztergai.

“Nire talde finkoa Lisker da”



Loiola Maderak (Soraluze, 1979) ibilbide luzea egin du bateriajole moduan, hemeretzi urte zituenean hasi eta gaur egunera arte. Azken hilabeteotan, bere izena bolo-bolo ibili da Lorelei taldeari lotuta, baina bere talde finkoa Lisker erromeria taldea da.

Nola zaletu zinen bateriara?

Arrebaren kulpa izan zen. Gaztetxotan bi makila erregalatu zizkidan. Uste dut danborradakoak edo zirela, baina nik makila horiekin praktikatzen nuen, arrebaren kaseteetako musika entzunez.

Talde mordoxxka batean jo duzu.

Bai. RK Zulo izan zen publiko aurrean jo nuen lehenengo aldietako bat, baina ordurako Matxura taldean ere jotzen nuen. Gero etorri ziren Deja Bu, Xero Xiete erromeria taldea, EH Sukarra eta Nortonen bakarkakoa.

2016an Lisker erromeria taldearekin hasi nintzen.

Alde handia dago rock talde batean jotzetik erromeria talde batean jotzera?

Bai. Erromeria taldearen kontzertuak lau ordu ingurukoak izaten dira eta ikasita izan behar duzu erreperitorioa, ehun kantutik gorakoa. Gogoratzen naiz, Liskerren sartzeko hiru hilabetez ia egunero entsaiatu behar izan nuela... Gogorra da. Urtean, batuz beste, 45 emanaldi inguru ditugu.

Zein da alde ona?

Nahi duzun horretan diharduzula. Gainera, eszenatokiak badauka alde intentso bat eta jendeak erantzuten badu oso gustura sentitzen zara.


Ibilbide gehiena bertsioak joz pasatu dut eta gustatuko litzaidake noizbait neure taldea izatea, abesti propioekin.



1. Loiola Bilboko Kafe Antzokian EH Sukarrarekin. Argazkia: Gontzal Garate.
2. Lorelei taldearekin Andoainean.
3. Gaztetxean Xero Xieterekin.
4. Eibarko Unzagan Lisker taldearekin.

"Marokoar asko miserian bizi dira"

SAMIRA CLAINE CASABLANCATIK SORALUZERA



Samira Claine (Casablanca, 1967) 2018ko abenduaren 7an etorri zen Granadatik Soraluzera. Familian bost anai-arreba dira eta horietatik hiru bizi dira Europan: Bruselan, Berlinen eta Soraluzen. Zuzenbidean lizentziatua da, baina bizimodu gogorra daroa. Hala ere, beti du irribarrea ahoan eta bere berbei duintasuna darie.

Zer dela eta aukeratu zenuen Soraluze bizi izateko?

2000. urtetik Granadan bizi nintzen amarekin, baina ama hil zen eta erabaki nuen aldaketa behar nuela. Lagun bat nuen Arrasaten eta honuntz etorri nintzen. Alokairuko etxea Soraluzen topatu nuen

Zer moduz Soraluzen?

Ez oso ondo. Sagar Errekako goialdeko azken etxeetako batean bizi naiz, ez da lekurik

egokiena bakarrik bizi den emakume batendako.

Orain dela 20 urte Marokotik ateratzea erabaki zenuen.

Marokon badago dirua, baina, diktadura guztietan gertatzen den bezala, agintariiek euren dute dirua eta herritar asko miserian bizi dira. Ni zuzenbidean lizentziatu nintzen, baina Marokon ez nuen lanik aurkitu; Granadan ere ez.

Auzoko egitasmoan parte hartzen duzu.

Bai, euskarazko berba batzuk ikasi ditut. Ni oso irekia naiz, gustatzen zait jendearekin harremantzea. Pena da astean behin izatea. Ez da nahikoa. Nire ama-hizkuntza arabiera da eta frantsesa ere ikasi nuen eskolan. Espainian gaztelera ikasi dut eta ingeles pixkat ere bai. Euskaraz ere ikasiko nuke.

1. Granadako San Nikolas plazan, Alhambren parean.
2. Bruselan, ahizpa bisitatzerantz egindako bidaietan.
3. Donostian.

Toponimoen mapa berriua

UDALAK HERRIKO LEKU-IZENAK JASOTZEN DITUEN MAPA ARGITARATU DU

ARGAZKIAK ETA TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Joan zen egunean, Udalak Soraluzeko Toponimoen mapa berriua aurkeztu zuen Udaleko batzar aretoan, aretoa jendez beteta zegoela. Bertan izan ziren, Jon Basauri eta Javier Elorza, toponimoen mapa osatu eta eguneratzeko lan nagusia burutu duten ikerlariak, eta baita lan horretan aholkulari izan duten Jose Luis Ugarte Jaurlaritzako teknikaria ere (Euskaltzaindiako Mikel Gorrotxategik ere parte hartu du lanean). Alkateak egindako lana eskertu zien hirurei, baita Kontrargi argazki kolektiboari ere, eskuorria euren argazkiekin ilustratu baitute. Maparen ale bat eskuratu nahi izanez gero, udaletxeko harrera zerbitzuan eska liteke.

500 leku-izenetik gora jaso dituzte

Toponimoen mapa 2009an argitaratu zen azkenekoz, baina harrezkero, 2013an hasita, Jon Basaurik herriko toponimoen bilketa lana burutu du eta lan horixe baliatu dute orain Elorzak eta biek mapa berriua eta osatzeko. Oraingo mapan aurrekoan agertzen ez ziren hainbat eta hainbat toponimo gehitu dituzte; guztira, 500 leku-izen inguru. Batzuk paperezko bertsioan jaso dituzte eta gainerakoak digitalekoan. Ez dituzte mapan



Jose Luis Ugarte, Javier Elorza eta Jon Basauri.

sartu etxe ondoko lekuei erreferentzia egiten dieten izen arruntak, ezta kokatu ezin izan dituztenak ere.

Idatzizko iturriak erabili dituzte ahozkoak argitzeko

Izen horiek jasotzeko bi iturri nagusi erabili dituzte: artxiboetako dokumentuak (idatzizkoa) eta baserritarrak (ahozkoa). Artxiboetara dagokienez, Udaleko eta Aldundiko artxiboak aztertu dituzte, XVI. mendetik gaur arteko dokumentuak begiraturaz.

TOPONIMOEN MAPAREN ALEAK UDALETXEKO HARRERA ZERBITZUAN ESKA LITEZKE

Lan “neketsua” izan arren, gaur egunera ahozko transmisio bitartez heldu diren leku-izenen jatorria zein den ulertzeko bidea eman du kasu askotan.

Galera bizia

Baserritarrei dagokienez, 70 bat baserritarrekin elkartu dira eta galdeketa horiek egitean konturatu dira leku-izenen gaineko ezagutza galera bizian dagoela: “baserritar nagusienek izen asko dakizkitez, baina kalera bizitzera joan direnek eta gazteenek askozaz izen gutxiago ezagutzen dituzte, asko jota baserriaren ingurukoak”. Basaurik eta Elorzak, biek azpimarratu dute leku-izenen gaineko jakintza oso azkar ari dela galtzen eta, ondorioz, garrantzi handia duela izen horiek jasotzeak.



Papereko argitalpenaren ataltxo bat. Laster, toponimoen mapa digitalean ere kontsultatu ahal izango da Euskadi.eus webgunean.

Zenbait leku-izen berezi

‘Serabil’

Argarate eta Zabaleta bitartean dagoen errebuelta handiaren ingurua izendatzeko erabiltzen den toponimoa da. XVI. mendeko dokumentu batean aurkitutakoari esker jakin dute bere jatorrizko forma zein zen: “Un manzanal a do dizen celaybiribil al pie de dicha huerta y heredad de Zabaleta’.

‘Muskiritzu’

Erdi Arotik oraintsu arte, Karakateko antenatik Elosura bitarteko mendilerroa izendatzeko erabiltzen zen forma nagusia zen. Gaur egun, Soraluzen ahaztu samar dago, haren ordeztu, ‘Karakate’ edo ‘Mendigaina’ nagusitu direlako.

‘Otaola’

Gaur egun Sagar-Erreka esaten zaion bailara izendatzeko erabiltzen zen eta baserriaren oraindik ere erabiltzen dute.

‘Urkiazelai’

1430ean, eremu horretan, ‘Urteaga/Urtiaga’ izeneko baserri bat zegoen eta hortaz, leku horren jatorrizko izena ‘Urtiagazelai’ (laburtuta ‘Urtiazelai’) da, eta ez ‘Urkiazelai’.

‘Akellarre’

Tontor batean, buzoia eta guzti, ‘Akellarre’ izena dago jarrita. Baina baserriaren ‘Akilar’ esaten diote eta dokumentuetan ‘Akilladar’ dago jarrita.

‘Itxasoegigoitia’

San Andresko ermita dagoen lekua esaten zitzaion.

‘Aitadomingoputzua’

Sagarragaerrekako bainu-lekua. Putzu ondoan jausitako baserriaren hondarrak ikus daitezke. Baserriaren azken jabeak ‘Mutxa’ zuen izena. Hortik dator ‘Mutxaneko’ izena.

‘Kortazar’

Gaur egun ezagunagoa da Karakate izenarekin baina, Karakate Elgoibar aldera zegoen baserri bat zen eta Kortazar da inguru horren jatorrizko izena.

‘Arantzazuko haitzak’

Ezagunagoa da ‘Munetako haitzak’ izenarekin.

‘Ozeizia’

Ezoziko ermitaren izen zaharra. Azken gizaldietan ondorengo bilakaera izan du: Oçeiciã>Eçoiçiã>Ezozia.

‘Erniketa’

San Marzialgo ermitaren ondoan dagoen baserriaren izena da.

‘Ondarra’

Osirantz (Osintxu) aldeko Mugarri baserriaren ondoko parajea da. Ondararik Madaltzagara artekoak dira gure udalerriko lurak.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK




Ilyas Ouhammi Boussagui
Abenduaren 1ean, 9 urte. Zorionak! Etxekoan partez.



Dihan
Zorionak! Urtarrilaren 21ean, urtebete! Segi gure egunak alaitzen! Asko maitte zaittugu, txapeldun!



Julene eta Ibai
Zorionak bikote!!! urtarrilaren 2 eta 14an, 3 eta 5 urte. Segi horrela! Muxu handi bat! Nayalaren partez.



Unai Laskurain Lopez
10 urte handi! Zorionak! Etxekoak.




Nerea Atxotegi
Urtarrilaren 18an, 21 urte! Zorionaaaak! Ondo pasau zure eguna. Besarkada estu bat etxekoan partez. Bereziki, Markelen partez.



Onintze
Urtarrilaren 16an, 11 urte. Zorionak, artista. Etxekoan partez, muxu Potolo-potoloa.



Intza Baglietto Olaizola
Urtarrilaren 18an, 7 urte. Gure artista txiki haundixa zara, jarraitu zoriontsu izaten printzesa! Matxe matxe. Etxekoak



Alain Lopez Pellitero
14 urte bete dituzu. Zorionak! Asko maite zaitugu! Musu eta besarkada asko zure familiarean partez.

JAIOBERRIAK



Ekan Arana Lobato
Urtarrilaren 21ean jaio zen.

HILDAKO ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak
Maria Jesus Gisasola Aldazabal
Marisa de la Rosa Alonso
Marino Azcona Miguel

Jaiotakoak
Ekain Arana Lobato

Sorabuzeko Kooperatiba Elkarteak
1910etik zaharkitua

Arraindegia, janaria, errapak, etako tresnak, etxera eramateko zerbitzua

Kalebarra 4
Tel.: 943 75 13 45

Astelehenerdik ostiralera:
08:30 - 12:30 eta 15:00 - 19:45
Larunbatak: 08:30 - 13:00

FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 15 46 (Sorabuzeko) - 943 71 82 49 (Olatu)
fogasleriturgintza@gmail.com

MABEL
ILBEPAINDEGIA

Ilbepaindegiaren zerbitzua
Dopilazioa
Re-sustrairik gabeko permanentea
Makilajua
Manikura
erdiaurkoria
Solariuma

Errabal 1
Tel.: 943 75 14 89

ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA

aruntza dekorazioakoa instalazioak

Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

Carpinteria MANU
Aroztegia

Atak
Bontak
Pegatutakoak
Sukaldeak
Tortak

Manuel Cifuentes
Estazioa 8. barrera Mug. 636 05 81 25

TXURRUKA
JATETXEA

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetako menu berezia
Karta

www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81

Ilbepaindegia
Estetika
Solariuma

Gabellan 4. beheko
Tel.: 943 75 15 11 - 082 51 34 04

TXURITXU GOZOTEGIA

Astelehenerdik ostiralera:
08:30-13:00 eta 16:30-20:30

Larunbatak: 08:30-13:00
Igandeak: 08:30-14:30

Gosariak, ogia, prentsa, pastilak, bombonak.
Etxera eramateko zerbitzua

Tel.: 943 75 24 43

MENDIZABAL
okindegia

Ogia - Prentsa - Gosariak

Astelehenerdik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00

Larunbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99



Feli Oregi psikomotrizitatea lantzeko gimnasioan.

Haurren garapenerako zentroa

Feli Oregi logopeda eta haurren garapenean adituak, aholkularitza eta terapia zerbitzua eskaintzen du Eizaga Etxetxo baserriko zentroan (Sagar Erreka auzoa).

Feli Oregik aspalditik dihardu haurren garapenean arloan murgilduta, baina orain dela bi urte amaitu zituen logopedia ikasketak eta orduan erabaki zuen arlo horretara modu profesionalean dedikatzea. Gimnasioa eta bulegoa egokitu zituen bizi den baserrian bertan, eta iaztik bertan eskaintzen du zerbitzua. Feliren esanetan, “guraso edo hezitzaileok garrantzitsuak gara haurraren garapen prozesuan, eta parte-hartzaile aktibo ere izan gaitezke bidea zein den ezagututa”.

Zein zerbitzu eskaintzen dituzu?

Gure lana da gurasoei erakutsi eta aholkua ematea eskatzen ditugutenean. Haurrak behatzen

ditugu eta kasu bakoitzean azaltzen dugu gure ikuspegitik umeak zer beharko lukeen ahalik eta funtzionalena izateko: gurekin terapia egin, etxean ariketak egin edota beste profesional batengana jo. **Zer nolako arazoak tratatzen dituzu?**

Etortzen dira funtzionalitate arazo nabarmenak dituzten umeak: autismoa, garun

**"UMEAK LEHENENGO
18 HILABETEETAN
ESKURATZEN DITU
BERE GARAPENERAKO
BITARTEKOAK"**

paralisia, arreta galera, iperaktibitatea.... Baina gero eta gehiago etortzen dira ikaskuntza edo psikomotrizitate arazoak dituzten umeak ere. Horrez gain, prebentzio zerbitzua ere eskaintzen dugu, 0 urtetik aurrera.

Zergatik da hain garrantzitsua lehen 18 hilabeteetako fase hori?

Umetokian bederatzik hilabetez egon eta gero, umeak jaio eta lehenengo 18 hilabeteetan eskuratzen ditu bizirauteko, hazteko, garatzeko eta ingurune fisiko, emozional eta kognitiboarekin erlazionatzeko bitartekoak. Sasoi horretan pauso asko ematen dira eta funtsezkoak dira pertsona horren etorkizunari begira, bere funtzionamenduko oinarriak baitira ikasketa prozesurako, hizkuntzaren garapenerako, kiroletarako, antolakuntzarako, autoestimarako, harremanetarako, pentsamendua garatzeko...

Umeak naturalki ematen dituen faseak ezagutuz gero, bidelagun izan gaitezke eta gabeziaren bat antzeman ezker, lehenbailehen hasi behar da lanean. Askotan laguntza txiki bat nahikoa izaten da aurrera egiteko. Zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta errezagooa izaten da arazoa bideratzea.



Feli Oregi

Logopedia eta haurren garapenerako zentroa

Feli Oregi

Logopedia eta haurren garapenerako zentroa
699 573 075
feli.oregi2gmail.com

GOKI

erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.
FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA



BULEGO TEKNIKOA

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42